

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4739

*1886/2023 EBAZPENA, irailaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Iratxe Bengoa Alonso andrea Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari kargutik kentzen den, berak hala eskatuta.*

212/2016 Ebazpena, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Iratxe Bengoa Alonso andrea Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari kargutik kentzen den (2016ko martxoaren 9an EHAAan argitaratua).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iratxe Bengoa Alonso andrea, berak hala eskatuta, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaria kargutik kentzea, eta egindako lanegatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2023ko urriaren 1eko laneguna amaitzen denetik aurrera izango du eragina.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.